



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAI A

PRENTSARAKO OHARRA  
2017/05/17

## **Batzar Nagusietan iragarri dauenez, Aldundiak ez dau Karrantzako mindategiaren inguruko epaiaren kontrako helegiterik aurkeztuko**

Elena Unzueta Iraunkortasunerako eta Ingurune Naturalerako foru diputatuak, Podemos Bizkaia taldeak eskatuta Batzar Nagusietan izan dauen agerraldian iragarri dauenez, Aldundiak ez dau helegiterik aurkeztuko Bilboko Merkataritza Arloko 2. Epaitegiak martiaren bukaeran emon eban epaiaren aurrean. Epai horretan, Karrantzako mindategiaren konkurtsoa “ustebakoa” zala esaten da. Soziedade sustatzaileak porrot egin eban, 10 milioi eurotik gorako diru-laguntzak jaso ostean. Horreetatik milioi bi euro Foru Aldundiak emondakoak izan ziran.

Diputatuak ezeztu egin dau erespide “teknikoetan eta juridikoetan” oinarritzen dan erabagi horrek “norabide aldaketea” erakusten dauenik Aldundiak gai horretan aurrera eroan dauen politikeagaz alderatuz, Foru Aldundiaren helburuak “inbertidutako dirua gehi interesak berreskuratzea” izaten jarraitzen dauelako. Unzuetak adierazo dauenez, ikuspegi juridikotik “ez da bideragarria” balizko apelazino helegitea, eta ez dau epaia balorau gura izan, talde moreak eskatu deutsan moduan. “Epaia errespetau egiten dogu”, esan dau.

Erabagiak “ezustea” eragin dau oposizinoko taldeen artean. Podemos Bizkaiako Josean Elgezabalen eretziz, “errazoi asko” dagoz epaiaren aurrean helegitea aurkezteko, eta ez ez aurkezteko erabagia kritikau egin dau, “alde handia dagolako esaten danaren eta egiten danaren artean”. PP taldearen eretziz, erabagi horrek “kaltetu” egingo dau milioi bi horreek bide horretatik berreskuratzeako aukerea, eta gehiago oraindino, beste erakunde batzuetatik, Estaduko Abogadutzatik, adibidez “helegitea aurkeztu egingo danean”, gogorarazo dau Eduardo Andrés batzordekideak. “Beste Administrazino batzuek helegitea aurkeztu behar badabe, errazoiak ikusten dituelako izango da”, esan dau David Lopategi EH Bilduko batzordekideak, eta Aldundiak, bere erabagia, erespide teknikoetan eta juridikoetan “bakarrik” oinarrituta hartzea penagarria dala esan dau.

Ignacio Jerónimo sozialistak, bere aldetik, mindategiari emon jakozan laguntzak geratu ebazana Patxi Lópezen Jaurlaritza sozialistea izan zala gogorarazo eta “kopuru horreek berreskuratzearen garrantzia” azpimarratu ostean, Aldundiko zerbitzu juridikoen erespide “profesionalak” jarraitu beharra adierazo dau.

EAJ-PNVko lerroetatik bat egin dabe Aldundiak jarraitu dauen bideagaz. “Erabagi politikoak erespide teknikoetan oinarritu behar dira”, adierazo dau María Presak. Bere eretziz, kasua “ez dago itxita”, eta oraindino badagoz “ondare eta zigor erantzukizunak” eskatzeko bideak. Berak eta diputatu andreak gogorarazo dabenez, Estaduko Kontuen Epaitegiak aurretik txosten bat emon eban, eta txosten horretan Aldundiaren aldetik ezelango “kontabilidadeko irregulartasunik” ez zala egon esaten zan. Aldundiak, “modu zuzenean” emon eutsazan milioi bi euroko diru-laguntzak gero porrot egin eban mindategiaren proiektuari.

EZEZKOA NEKAZARITZA ARLOKO LAGUNTZAK HANDITZEARI



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

Beste alde batetik, Bizkaiko Batzar Nagusietako Iraunkortasunerako eta Ingurune Naturalerako Batzordeak ez dau onartu EH Bilduk aurkeztu dauen arauz besteko proposamen bat, ICM izenekoan –egoera txarrean dagozan guneetako ustiapenatarako konpentsazinoko laguntzak– laguntzetan dagozan goiko mugak “450 eurora” ailegau daitezaz, Europako PDR izenekoak ezarten dauen moduan. Mikel Kormenzana batzordekideak esan dau penagarria dala “beherantz doan” prima hori Euskadin, gehienez be, “hektarea bakoetarako 297 eurokoa” izatea. Kopuru horretatik %75 Europar Batzordeak jartzen dau, FEDER izeneko funtsen bitartez. Bere eretziz, Europako lurralde batzuek eskuratzen daben gehieneko tope hori ez lortzea “funtsak galtzea” da.

Podemos Bizkaiaren aldeko botoa eta PPren abstentzinoa lortu dauen proposamena ez da onartu, EAJ-PNV eta PSE-EE kontra agertu diralako. Ignacio Jerónimo sozialistak “mugatuta” dagozan baliabideak aitatu ditu, eta Euskadin finkatutako topea, Euskadiko Nekazaritzaren Garapenerako 2015-2020 Programaren barruan hiru Foru Aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren artean “adostasuna” lortu ostean ezarri zala gogorarazo dau.

Zuriñe Argatxa jeltzaleak adierazo dauenez, Euskadiko erakundeek finkau daben mugea “ahal dan handiena da”, Europako arautegia kontuan hartzen bada. “Lortu bako irabazien %100era heltzen gara. Laguntza gehiago emotea gurako geunke, baina ezin gara arautik kanpo egon”, esan dau. Holan egitekotan, “Europak balio barik itziko leuke”.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

NOTA DE PRENSA  
18/05/2017

## **La Diputación anuncia en Juntas Generales que no recurrirá la sentencia sobre la planta de purines de Karrantza**

La diputada foral de Sostenibilidad y Medio Natural, Elena Unzueta, ha anunciado hoy en una comparecencia en Juntas Generales solicitada por el grupo juntero Podemos Bizkaia, que la Diputación no va a recurrir la sentencia que dictó el Juzgado de lo Mercantil número 2 de Bilbao a finales de marzo en donde declaraba “fortuito” el concurso de la planta de purines de Karrantza, cuya sociedad promotora quebró tras lograr subvenciones por más de 10 millones de euros, de los que dos millones de euros fueron otorgados por la Institución foral.

La diputada ha negado que esta decisión, sustentada en criterios “técnicos y jurídicos”, suponga “un cambio de rumbo o de dirección” respecto a la política llevada a cabo por la Diputación en este asunto, ya que el objetivo de la Institución foral sigue siendo “recuperar el dinero invertido más los intereses”. Unzueta ha tachado de “inviabile” jurídicamente un supuesto recurso de apelación y no ha querido entrar a valorar la sentencia como le ha pedido el grupo morado. “Respetamos la sentencia”, ha dicho.

La decisión ha causado “sorpresa” entre las formaciones de la oposición. Para Josean Elgezabal, de Podemos Bizkaia, existen “muchos motivos” para recurrir la sentencia y ha criticado la decisión de no hacerlo por existir una “gran diferencia entre lo que se dice y lo que se hace”. Desde el PP creen que supone “penalizar” la recuperación de esos dos millones por esta vía, cuando, además, desde otras instancias como la Abogacía del Estado “sí se va a recurrir”, ha recordado su apoderado Eduardo Andrés. “Si otras Administraciones van a recurrir es porque ven razones”, ha coincidido el juntero de EH Bildu David Lopategi, quien ha lamentado que la Diputación tome una decisión atendiendo “solo” a criterios técnico-jurídicos.

Por su parte, el socialista Ignacio Jerónimo, después de recordar que fue el Gobierno socialista de Patxi López quien paralizó las ayudas a la planta y de destacar la “importancia de recuperar esas cantidades”, ha apuntado a la necesidad de seguir los criterios “profesionales” de los servicios jurídicos de la Diputación.

Desde las filas del PNV se ha compartido el camino seguido por la Diputación. “Las decisiones políticas hay que sustentarlas en criterios técnicos” ha matizado María Pesa, para quien el caso “no está cerrado” y existen vías para pedir “responsabilidades patrimoniales y penales”. Tanto ella como la diputada han recordado que el Tribunal de Cuentas del Estado ya emitió un informe en el que se negaba la existencia de “irregularidad contable” por parte de la Diputación, que otorgó dos millones de euros en ayudas al fallido proyecto de la planta de purines “correctamente”.

### **RECHAZO A INCREMENTAR LAS AYUDAS AGRARIAS**

Por otro lado, la comisión de Sostenibilidad y Medio Natural de la Cámara vizcaína ha rechazado una proposición no de norma de EH Bildu para incrementar el tope máximo de ayudas compensatorias para explotaciones en zonas desfavorecidas. El grupo morado pedía



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

elevanto “hasta los 450 euros” este máximo por hectárea al año, tal como recoge el PDR Europeo. El apoderado Mikel Kormenzana ha lamentado que esta prima “decreciente” se sitúe en Euskadi en un máximo de “297 euros por hectárea”, de los que el 75% son aportados por la Unión Europea a través de los fondos FEDER. Para él, no alcanzar este tope, que sí siguen otras regiones europeas, supone una “pérdida de fondos”.

La propuesta, que ha sido apoyada por Podemos Bizkaia y ha contado con la abstención del PP, ha sido tumbada por el rechazo de PNV y PSE-EE. El socialista Ignacio Jerónimo ha esgrimido la causa de los recursos “limitados” y ha recordado que el tope fijado en Euskadi llegó tras alcanzarse un “consenso” entre las tres Diputaciones y el Gobierno vasco en el marco del Programa de Desarrollo Rural del País Vasco 2015-2020.

La jeltzale Zuriñe Argatxa ha mantenido que el límite fijado por las instituciones vascas viene a ser el “máximo posible” teniendo en cuenta la normativa europea. “Llegamos al 100% del lucro cesante. Nos gustaría aumentar las ayudas pero no podemos actuar fuera de la norma” , ha dicho. De hacerlo, “Europa lo dejaría sin efecto”.